MATERIAL INFORMATIKOAREN HORNIDURA-KONTRATUAREN KLAUSULA ADMINISTRATIBO PARTIKULARREN AGIRIA
PROZEDURA IREKI OSO SINPLIFIKATU BIDEZKO ESLEIPENA

Espediente zenbakia: KON_IOS_0015_2021

LABURPEN TAULA

ADJUDIKATZAILEA

Erakundea: Bermeoko Udala.
IFZ: P4802100J
NUTS kodea: ES213.
Telefono zenbakia: 94 617 91 00.
Faxa: 94 688 23 12

Helbidea: Irakaskintza 14-16, 48370 Bermeo (Bizkaia).
Helbide elektronikoa: antolakuntza@bermeo.eus.
Egoitza Elektronikoa: http://bermeo.eus

I. KONTRATUAREN ELEMENTUAK

1. KONTRATUAREN XEDEA

1.1 Xedea: Kontratu honen xedea da material informatikoa hornitzea, ekitaldi honetan planteatutako beharrizan informatikoei aurre egiteko, eta, horrela, Udalaren sistema informatikoaren berrikuntza planarekin jarraitzea.

1.2 Ase gura diren beharrizanak: Plegu honetan aipatzen den kontratazio-prozedurarekin bete beharreko administrazio-premia da Bermeoko Udalak, etengabeko modernizazio-prozesuan, bere lan-sistema teknologia berrien aplikazioan oinarritzen duela. Hori dela eta, azken urteotan sistema informatikoetan oinarritutako zerbitzu batzuk zabaldu ditu, mantendu eta garatu beharrekoak.

Sistema horiek erabiltzeko, beharrezkoa da langileentzat ekipoak izatea, sistema horiekin bateragarriak direnak, eta erabiltzaile-esperientzia ezin hobea ematen dutenak, langileen eguneroko lanak eraginkortasunez eta efizientziaz egin ahal izateko.

1.3 Loteak: Kontratua ez da loteetan banatzen, kontratuaren justifikazio-memorian azaldutako arrazoiengatik.

1.4 CPV:
30200000-1 Ekipo eta material informatikoa
30236000-2 Askotariko ekipo informatikoa

CSV: 07E500080EA300G6K6C6L8M8J0

2. KONTRATU MOTA

- Modalitatea: Hornidura
- Erregulazio harmonizatupeko kontratua: Ez
- Errekurtso berezia jar daiteke: Ez
- Kontratu erreserbatua: Ez

3. ORGANO ESKUDUNA

Antolakuntza eta Teknologia Berrien Zinegotzi Delegatua.

SPKLren 61. artikuluaren eta II. Xedapen Gehigarriaren arabera, Kontratazio-organoa Bermeoko Udaleko alkatea da. Hala ere, 2021eko martxoaren 11ko 702 zenbakidun Alkatetza Dekretu bidez, Antolakuntza eta Teknologia Berrien Zinegotzigoaren esku utzi da eskumena, 15.000,00 eurotik beherako balio zenbatetsia duten kontratuetan.

4. LIZITAZIO ELEKTRONIKOA

Lizitazio honek, eskaintzak baliabide elektronikoen bidez aurkeztea baino ez du onartzen. Horretarako:

1.- Eskaintzak Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataforman dagoen lizitazio elektronikoko sistemaren bidez aurkeztuko dira: https://www.contratacion.euskadi.eus/

2.- Jakinarazpenak eta komunikazioak Euskadiko Kontratazio Publikoko Plataformaren bidez egingo dira eta/edo Bermeoko Udaleko egoitza elektronikoaren bidez: https://www.tramiteakonline.bermeokoudala.eus/

Hala ere, ahozko komunikazioa (edo posta elektronikoa) erabil daiteke prozeduraren funtsezko elementuei buruzkoak ez diren komunikazioetarako, SPKLren XV. Xedapen Gehigarrian eta harekin bat datozenetan ezarritako moduan.

5. KONTRATU IZAERA DUTEN DOKUMENTUAK

Esleipendunak bere proposamena aurkeztean bere gain hartzen dituen betebehar gehigarrien kalterik gabe, ondorengo dokumentu hauek kontratu izaera izango dute: karatula, baldintza administratiboen agiriak, baldintza teknikoak eta kontratua formalizatzeko agiria.

CSV: 07E500080EA300G6K6C6L8M8J0

6. KONTRATUAREN ARDURADUNA

Kontratuaren arduraduna: Informatikako Teknikaria.
Helbide elektronikoa: informatikatek@bermeo.eus
Kontratuaren jarraipen eta exekuzio arruntaz arduratzen den unitatea: ATB Saila.

7. UNITATE TEKNIKOA

Idazkaritza Saileko Teknikaria eta Informatikako Teknikaria.

8. KONTRATUA BURUTZEKO EPEA

Kontratuaren epea: 2 hilabete.

Hasiera data: Kontratua formalizatzen denetik.

Luzapen posibleak eta epea: Ez dira luzapenik aurreikusten.

9. KONTRATUAREN BALIO ESTIMATUA

9.1 Lizitazio prezioa: 8.264,46 euro, BEZ gabe.

9.2 Aurreikusitako aldaketen kopurua: 0,00 euro, BEZ gabe.

9.3 Luzapenen prezioa: 0,00 euro, BEZ gabe.

Balio estimatua guztira: 8.264,46 euro, BEZ gabe.

10. KONTRATUAREN LIZITAZIORAKO OINARRIZKO AURREKONTUA

KONTZEPTUA	ZENBATEKOA
Zuzeneko kostuak	7.438,01 €
Zeharkako kostuak	826,45 €
Zenbateko partziala	8.264,46 €
BEZa	1.735,54 €
Zenbateko osoa	10.000,00 €

CSV: 07E500080EA300G6K6C6L8M8J0

11. FINANTZIAZIOA

Aplikagarriak diren aurrekontuko kontu-sailak (AK) hurrengoak dira:

2021. urtea AK 00300-92000-227.08.00 9.000,00 euros.
2022. urtea AK 00300-92000-227.08.00 1.000,00 euros.

Kontratua hau kontsignazio nahiko izatearen baldintza etenarazlearen menpe geratzen da.

12. PREZIOA ZEHAZTEKO SISTEMA

Aleko prezioak.

Kontratuaren xedea osatzen duten unitateen kopurua zehaztasunez definitzen da: Bai.

13. PREZIOAK BERRAZTERTZEA

Ez dagokio.

II. KONTRATATZEKO BALDINTZAK

14. GAITASUNA

Pertsona natural edo juridikoak beren estatutuen edo fundazio-arauen arabera berezkoak dituzten xede, helburu edo jarduera-eremuaren barruan dauden prestazioak dituzten kontratuen esleipendun izan daitezke soilik.

15. ENPRESA GAIKUNTZA

Ez da eskatzen.

16. KAUDIMENA

SPKLren 159.6.b) artikuluarekin bat etorriz, prozedura ireki oso sinplifikatuan lizitatzaileak salbuetsita daude kaudimen ekonomiko eta finantzarioa eta gaitasun tekniko edo profesionala egiaztatzetik.

CSV: 07E500080EA300G6K6C6L8M8J0

III. LIZITAZIOA

17. ESLEITZEKO PROZEDURA ETA MODUA

- Prozedura: Ireki oso sinplifikatua.
- Tramitazioa: Arrunta.
- Esleitzeko era: Irizpide anitzeko esleipena.
- Aurretiazko tramitazioa: Ez.

18. LIZITAZIOAREN PUBLIZITATEA

- Bermeoko Udaleko kontratugilearen profila: http://www.bermeo.eus
- Euskadiko kontratazio publikoko plataforma: https://www.contratacion.euskadi.eus/
- EBAOn argitaratzea: Ez

19. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO EPEA ETA LEKUA

LEKUA: Kontratugilearen profilean, lotura honen bidez: http://bermeo.eus/1470.html

EPEA: 10 lanegun, iragarkia kontratugilearen profilean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Artxiboari izen orokor hau emango zaio:

- INFORMATIKAKO MATERIAL HORNIDURA. ERANTZUKIZUNEKO AITORPENA ETA AUTOMATIKOKI KUANTIFIKA DAITEZKEEN ESLEIPEN-IRIZPIDEAK

20. KONTSULTAK ETA ARGIBIDEAK

Kontsultak aurkezteko modua: idazkaritzakoaot@bermeo.eus helbide elektronikora idazki bat bidaliz, baldintza agiri administratiboen eranskineko ereduaren arabera.

Kontsultak aurkezteko epe muga: eskaintzak aurkezteko azken eguna baino 5 egun natural lehenago.

Lizitatzaile guztientzat interesgarriak diren egindako kontsulten erantzuna Bermeoko Udalaren kontratugilearen profilean argitaratuko da: http://www.bermeo.eus

CSV: 07E500080EA300G6K6C6L8M8J0

Kontsulten izaera loteslea: Bai.

21. DOKUMENTAZIOA AURKEZTEKO MODUA

Artxibo elektroniko bakarra aurkeztuko da:

ARTXIBO BAKARRA: Erantzukizuneko aitorpena eta automatikoki kuantifika daitezkeen esleipen-irizpideak formulak, zifrak edo ehunekoak.

Artxibo guztiak digitalki sinatu behar dira.

22. LIZITATZAILEEN PROPOSAMENA: AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

ARTXIBO BAKARRA: Erantzukizuneko aitorpena eta automatikoki kuantifika daitezkeen esleipen-irizpideak formulak, zifrak edo ehunekoen bitartez.

Dokumentazio hau izan beharko du:

- **Erantzukizunpeko adierazpena** Bermeoko Udalaren aurrean, I. Eranskinean dagoen ereduaren arabera.

- **ABEE:** ABEEren kasuan, aldi baterako enpresa-elkartea eratzeko konpromiso-eredua aurkeztuko da (baldintza agiri administratiboen eranskinetan azaltzen den ereduaren arabera, behar bezala beteta).

  * **Oharra:** ABEEren kasuan edo kaudimena kanpoko bitartekoekin integratuz gero (SPKLren 75. artikulua), erantzukizunpeko aitorpen bat.

- **Eskaintza ekonomikoa** eta automatikoki ebalua daitezkeen gainerako irizpideak: administrazio-klausula partikularren agiriaren III. Eranskinean ageri den ereduaren arabera.

  Eranskinean ezarritako eredua aldatzen duten eskaintzak aurkeztuz gero, lizitaziotik kanpo gelditutko da. Enpresa lizitatzaile bakarra egonez gero, unitate administratiboak erabakiko du.

23. BEHIN BEHINEKO BERMEA

Ez da eskatzen

CSV: 07E500080EA300G6K6C6L8M8J0

IV. ESKAINTZAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK

24. ESLEIPEN IRIZPIDEAK

- Prezioa: % 80
- Ekipoaren ingurumen ezaugarriak: % 12
- Bermeak: % 8

- **Automatikoki ebaluatu daitezkeen irizpideak (100 puntura arte)**

a) Eskaintza ekonomikoa (80 puntu):
Beherapenik handiena lizitazio prezioaren% 5 baino handiagoa bada, puntu guztiak baja portzentajerik handienari emanen zaizkio eta gainerako eskaintzei, baja portzentajearen proportzioan, formula honen arabera:

Pi = 80 x (Bi/Bm)

Beherapenik handiena ez bada lizitazio prezioaren% 5 baino handiagoa, eskaintza bakoitzak bere beherapen portzentajearen proportzioan lortuko ditu puntuak, formula honen bidez:

Pi = 80 x (Bi/5)

Aldagaien definizioa:
Pi= "i" enpresa lizitatzailearen puntuazioa
Bm = gehieneko baja
Bi = "i" enpresa lizitatzailearen baja

Eskaintzak BEZik gabe baloratuko dira. Lizitazioaren prezio berdina duten eskaintzek 0 puntu jasoko dituzte.

(Oharra: enpresa lizitatzaile bakarra egonez gero, puntuazio osoa emango zaio)

b) Ekipoaren ingurumen ezaugarriak (12 puntu bitarte):

- Energia-kontsumo txikiagoa (8 punturaino). Gainontzeko eskaintzak, proportzionalki gutxiagotuz, hurrengo formularen arabera:

P = 8 x (PEM/PE)

P = eskaintzaren puntuaketa.
PEM = eskaintza baxuena.
PE = baloratzen ari den eskaintza.

CSV: 07E500080EA300G6K6C6L8M8J0

- Zarata maila txikiagoak (2 punturaino). Gainontzeko eskaintzak, proportzionalki gutxiagotuz, hurrengo formularen arabera:

P = 2 x (PEM/PE)

P = eskaintzaren puntuaketa.
PEM = eskaintza baxuena.
PE = baloratzen ari den eskaintza.

- Material birziklatuak atal plastikoetan duen ehunekoa (pisutan neurtuta) (2 punturaino). Gainontzeko eskaintzak, proportzionalki gutxiagotuz, hurrengo formularen arabera:

P = 2 x (PEM/PE)

P = eskaintzaren puntuaketa.
PEM = eskaintza baxuena.
PE = baloratzen ari den eskaintza.

c) Bermeak (8 puntu bitarte):

- Ekipoak 3 urte baino berme luzeagoa izatea (4 punturaino). Berme epe luzeenak puntuazio altuena jasoko du, eta gainontzekoak proportzionalki gutxiagotuz, hurrengo formularen arabera (urte osoak baino ez dira kontutan hartuko, ez frakzioak):

P = 4 x (PEM/PE)

P = eskaintzaren puntuaketa.
PEM = eskaintza baxuena.
PE = baloratzen ari den eskaintza.

- Ordezko piezen eskuragarritasun-aldia 3 urte baino luzeagoa izatea (4 punturaino). Epe luzeenak puntuazio altuena jasoko du, eta gainontzekoak proportzionalki gutxiagotuz, hurrengo formularen arabera (urte osoak baino ez dira kontutan hartuko, ez frakzioak):

P = 4 x (PEM/PE)

P = eskaintzaren puntuaketa.
PEM = eskaintza baxuena.
PE = baloratzen ari den eskaintza.

CSV: 07E500080EA300G6K6C6L8M8J0

25. KONTRATUA ANORMALKI BAXUTZAT HARTZEKO IRIZPIDEAK

% 20ko beherapena kontratuaren lizitazio prezioaren gainean, BEZ gabe.

V. KONTRATUAREN ESLEIPENA

26. AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIO ADMINISTRATIBOA

Kontratua esleitu aurretik, baldintza agiri administratiboen **26. klausulan** adierazitako dokumentazio administratiboa aurkeztu beharko da.

27. BEHIN BETIKO BERMEA

Ez dagokio.

VI. KONTRATUAREN EXEKUZIOA

28. PREZIOAREN ORDAINKETA

- Ordainketaren aldizkakotasuna: ordainketak hornidurak entregatu eta jaso ondoren egingo dira, maiztasun honekin: hilabetero.
- Ordaintzeko modua: kontratistak luzatutako faktura elektronikoak aurkeztu ondoren egingo da, baldintza agiri administratiboen 9. klausulan xedatutakoaren arabera, eta banku-transferentzia bidez.

29. PREZIOAK BERRIKUSTEA

Ez dagokio.

30. AZPIKONTRATATZEA ETA LAGATZEA

Kontratuaren exekuzioa azpikontratatu eta laga daiteke, administrazio baldintza zehatzen orriko **16. atalaren** arabera.

31. KONTRATUA ALDATZEA

Aurreikusi gabeko aldaketak: interes publikoko arrazoiengatik aurreikusi gabeko aldaketak sartzen ahalko dira soilik, eta SPKLren 205. artikuluan aurreikusitako inguruabar eta mugetako batzuk gertatzen direnean.

CSV: 07E500080EA300G6K6C6L8MBJ0

Jarraitu beharreko prozedura: baldintza agiri administratiboen **18. klausulan** adierazitakoa.

32. JASOTZEKO EPEA ETA BERME-EPEA

- Jasotzeko epea: hornidurak jaso ondoren egingo da, hilabeteko epean.
- Berme-epea: urtebete, horniduraren arabera jasotzen denetik. Berme-aldian, kontratistaren ardura izango da kontratua gauzatzean dauden akats guztiak konpontzea eta bere kontura konpontzea.

33. SUBROGAZIOARI BURUZKO INFORMAZIOA

Ez dagokio.

34. KONTRATUA AMAITZEKO ARRAZOI ESPEZIFIKOAK

1. Kontratua suntsiarazteko arrazoiak dira SPKLren 211. artikuluko a) idatz-zatitik i) idatz-zatira eta 306. artikuluan aurreikusitakoak.

2. Ebazteko arrazoi zehatzak hauek dira:

- Eskaintzan jasotako baldintzak ez betetzea.

- Baldintza agiri teknikoetan funtsezkotzat jotzen diren betebeharrak ez betetzea, hala badagokio.

- Baldintza agiri administratiboen **14. klausulan** adierazitako kontratua gauzatzeko exekuzio baldintza bereziak ez betetzea.

- Baldintza agiri administratiboen **12. eta 13. klausuletan** adierazitako kontratuaren funtsezko betebeharrak ez betetzea.

35. EXEKUZIO BALDINTZA BEREZIAK

- Baldintza teknikoen agirietan, bere kasuan, exekuzio baldintza berezi gisa adierazitakoak.
- Ingurumenekoak: klausula administratiboen agirietako **14. atalean** zehaztutakoak.

CSV: 07E500080EA300G6K6C6L8M8J0

36. DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA

Ez dago datu pertsonalen tratamendurik: kontratu hau gauzatzeko, enpresa esleipendunak ez ditu datu pertsonalak tratatuko.

37. KONTRATUA GAUZATZEKO HIZKUNTZA BALDINTZAK

Kontratu hau Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuko 6. artikuluan ezarritako hizkuntza-ofizialtasun bikoitzeko erregimenari lotuta dago, eta azaroaren 24ko 10/1982 Legeak, euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizkoak, eta hori garatzen duen araudiak (azaroaren 19ko 179/2019 Dekretua, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa) arautzen dute; beraz, enpresak bete egin beharko ditu hizkuntza-eskubide horiek.

38. ERREKURTSOAK

Baldintza agirien eta kontratazio espedientean onartutako erabakien aurka, berraztertze errekurtsoa aurkeztu daiteke, Herri Administrazioen Prozedura Administratibo Orokorra arautzen duen 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluen arabera.

Era berean, administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, Administrazioarekiko Auzibidea arautzen duen 29/1998 Legearekin bat.

CSV: 07E500080EA300G6K6C6L8M8J0

MATERIAL INFORMATIKOAREN HORNIDURA-KONTRATUAREN ADMINISTRAZIO-BALDINTZA ZEHATZEN ORRIAK
PROZEDURA IREKI OSO SINPLIFIKATU BIDEZKO ESLEIPENA

I.- KONTRATUAREN EDUKINA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratuaren xedea laburpen taularen **1.1 atalean** aurreikusitakoa izango da eta, kontratu honen bidez, **1.2 atalean** zehaztutako administrazio beharrizan hauek ase gura dira.

Kontratua ez da loteetan zatituko justifikazio-memorian azaldutako arrazoien arabera.

Kontratuaren xedea ikusita, hornidura administrazio-kontratua da, guzti hori Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 16. eta 25. artikuluak kontuan hartuta.

CPV: **1.4 atalean** zehaztutakoak.

Kontratua baldintza-agiri honetan oinarritzen da eta espedientean azaltzen den dokumentazio teknikoarekin bat etorriz egingo da. Baldintza-agiri honek kontratu-balioa du.

2. ORGANO ESKUDUNA

SPKLren 61. artikuluaren eta II. Xedapen Gehigarriaren arabera, kontratazio organoa laburpen taularen **2. atalean** zehaztutakoa da.

Organoak administrazio-kontratua esleitzeko ahalmena du eta, hortaz, kontratua interpretatzeko, betetzean sortzen diren zalantzak konpontzeko, herri-intereseko arrazoiak direla-eta aldatzeko, suntsiarazpena erabakitzeko eta suntsiarazpenaren ondoreak zein diren zehazteko ahalmenak ditu, ezargarri diren arauek ezartzen dutenari lotuta. Horren inguruan ematen dituen erabakiak betearazleak dira; nolanahi ere, kontratatzaileak auzibide eskudunera jo dezake aurka egiteko.

3. KONTRATUAREN ARDURADUNA ETA UNITATE TEKNIKOA

Kontratu honen arduraduna, eta **unitate teknikoa** laburpen taularen **6. eta 7. ataletan** zehazten dira.

CSV: 07E500080EA300G6K6C6L8M8J0

4. KONTRATUA BURUTZEKO EPEA

Kontratuaren iraupena laburpen-taulako **8. atalean** adierazitakoa izango da.

Enpresa esleipen-hartzailea berandutu egin dela ulertuko da epe horretan kontratua gauzatu ez bada, eta administrazioak ez du aldez aurretik errekerimendurik egin beharrik izango.

Hala ere, SPKLren 29.4 artikuluarekin bat etorriz, kontratu bat iraungitzean kontratistak egin beharreko prestazioaren jarraipena bermatzen duen kontratu berria formalizatu ez bada, esleipen-prozeduran gertatutako eta interes publikoko arrazoiren baten ondorioz sortutako ustekabeko gertaeren ondorioz, eta zerbitzua ez eteteko, jatorrizko kontratua luzatu ahal izango da, harik eta beste lizitazio berri bat egiten hasi arte.

5. KONTRATUAREN BALIO ESTIMATUA

Kontratu honen balio estimatua, kontratuaren xede diren loteak kontutan edukita, laburpen taularen **9. atalean** jasotako moduan banatzen da.

Eta balio hori hartu da kontuan lizitazio prozedura eta egin beharreko publizitatea aukeratzeko.

6. KONTRATUAREN LIZITAZIORAKO OINARRIZKO AURREKONTUA

Kontratu honen lizitaziorako oinarrizko aurrekontua laburpen taularen **10. atalean** jasotakoa da, BEZa barne. Eta hori izango da kontratazio organoak konprometitu ahal izango duen gehienezko gastua, kontratu honi lotuta.

7. KONTRATUAREN PREZIOA

Kontratu honen prezioa adostutakoarekin bat eta benetan exekutatutako prestazioaren arabera ordainduko zaio kontratistari.

Prezioak BEZa barne hartzen duela ulertuko da, aparteko partida legez zehaztuko bada ere.

8. FINANTZIAZIOA

Kontratuaren prezioa ordaintzeko behar beste diru aurreikusi da indarrean dagoen aurrekontuaren kontura eta, hurrengo ekitaldietako aurrekontuetan behar adina kreditu jarriko ditu aurrekontu gaietan eskumena duen organoak. Kontratuaren indarraldia kreditu horiek izatearen mende gelditukо da.

CSV: 07E500080EA300G6K6C6L8M8J0

Aplikagarria den partida laburpen taularen **11. atalean** zehaztutakoa da.

9. NOLA ORDAINDU

Enpresa esleipendunak eskubidea du benetan egiten dituen hornidurak ordaintzeko, hitzartutako prezioen arabera, emandako kontratuaren eta administrazioak emandako jarraibideen arabera.

Prezioa ordainduko da kontratistak luzatutako faktura elektronikoaren bidez, banku-transferentziaren bidez eta hura onartzeko prozeduraren bidez.

Konturako ordainketen kontzeptua dute, azken ziurtagirian gertatzen diren zuzenketa eta aldaketen mende, eta ez dute inola ere ekarriko kontratua onartu eta jasotzea.

10. PREZIOAK BERRAZTERTZEA

Espainiako ekonomia desindexatzeari buruzko martxoaren 30eko 2/2015 Legea eta berau garatzen duen otsailaren 3ko 55/2017 Errege Dekretuaren 9. artikuluan ezartzen denarekin bat etorriz, bai SPKLren 103. artikuluan ezarri denarekin bat etorriz, kontratu honi ez dagokio berrikuspena egitea.

11. BERMEAK

Behin-behineko bermea:

SPKLren 106. artikuluan ezarritakoarekin bat, eta kontratazioaren ezaugarriak ikusita, behin-behineko bermea aurkeztetik salbuesten da.

Behin betiko bermea:

SPKLren 159.6.f) artikuluan xedatutakoarekin bat, ez da dagokio behin betiko bermea eratzea prozedura honetan.

12. KONTRATUA BETETZEA ETA LANGILERIA ARLOKO BETEBEHARRAK

Kontratua baldintza-agiri honetan eta baldintza teknikoen agirian ezarritako moduan gauzatu beharko da.

Kontratua enpresa esleipendunak gauzatuko du bere kontura eta arriskupean, Udalaren zuzendaritza, ikuskaritza eta kontrolpean.

Enpresa esleipendunari edo haren mendeko pertsonei egotzi ahal zaizkien egintza edo omisioak direla eta, administrazioak uste badu kontratua behar bezala burutzeko konpromisoa hartzen duela, beharrezkotzat jotzen dituen neurriak hartzeko eskatu ahal izango du, kontratua gauzatzeko ordena egokia berrezartzeko.

CSV: 07E500080EA300G6K6C6L8M8J0

Kontratua behar bezala gauzatzen dela bermatzeko, enpresa esleipendunak koordinatzaile bat izendatuko du eta kontratuarekin zerikusia duen guztia pertsona horrekin eta beste inorekin hitz egingo da.

Zentzu horretan, kontratuaren exekuzioa era egokian burutzen ari dela bermatzeko eta beharrezkoak diren zuzenketak edota kontrolak egin ahal izateko udalaren aldetik, kontratuaren arduraduna eta esleipendunak izendatutako koordinatzailea batzartuko dira udalak zehaztutako modu, egun, ordu eta lekuan.

Koordinatzaileak, eta ez beste inork, izango da batzar horien ondorioz edota udalak ematen dituen agindu eta instrukzioen ondorioz, enpresak kontratua exekutatzeko kontratatuko dituen langileei beharrezkoak diren agindu, ohar eta zuzenketak egitearen arduraduna.

Esleipendunak, kontratua behar bezala exekutatzeko, beharrezko baliabide tekniko, pertsonal eta material izango ditu, eta bere ardura baino ez da izango hauke eduki eta kontratuak irauten duen denbora guztian zehar mantentzea, edota behar dituenak eskuratzea.

Hori horrela, besteak beste, kontratua exekutatzeko beharrezko langileak dituela bermatzeko, oporrak, gaixotasun, baimenak eta bestelako langileen eskubideak edo hutsuneak estaltzeko, ordezkapenak egiteko eta behar adina lan kontratu egiteko betebeharra izango du.

Esleipendunaren ardura izango da enpresa orok bere langileekin dituen betebeharrak betetzea eta horretarako neurriak hartzea. Ildo horretan, bere langileen soldatak ordainduko ditu; langileen baimen, opor eta librantza egunak onartuko ditu eta ordezkoak kontratatu; bere langileen lan arriskuei aurre egiteko beharrezko neurriak hartuko ditu; diziplina neurriak eta zigorrak hartuko ditu, beharrezkoa denean, eta langileen baldintzak negoziatuko ditu, legediarekin bat.

Kontratazioaren xede den zerbitzuari eragiten dion lan-grebaren kasuan, esleipenduna behartuta egongo da, kontratazio-organoak hala eskatuta eta hark adierazitako epean eta moduan, administrazio eskudunak zehazten dituen ezinbesteko gutxieneko zerbitzuak bermatzeko konponbideak eskaintzera. Esleipendunak irtenbide horiek eskaintzen ez baditu edo praktikara eramaten ez baditu, onartutako gutxieneko zerbitzuak betetzeko beharrezkotzat jotzen dituen kontratuak sustatu ahal izango ditu kontratuaren zuzendaritzak. Zerbitzu horiek esleipendunaren kontura izango dira, eta, beraz, haien fakturaziotik kontratu horien zenbatekoa kenduko da. Hirugarrenei kontratatutako lan horien ondoriozko erantzukizuna, ordea, esleipendunarena izango da, agiri honetan jasotzen diren ondorio guztietarako.

Kontratazioaren xede den zerbitzua ematen duten langileen ordainsaria esleipendunaren kontura izango da esklusiboki, eta haren kontura izango da edozein gizarte- eta/edo lan-kostu, indarrean dagoen legeria eta hari eragiten dioten hitzarmenak

CSV: 07E500080EA300G6K6C6L8M8J0

betez, eta udala kontratistaren eta haren langileen arteko harremanen gaineko erantzukizunetik erabat salbuetsita geratuko da.

Kontratazioaren xede den zerbitzua ematen duten langileen ordainsaria esleipendunaren kontura izango da esklusiboki, eta haren kontura izango da edozein gizarte- eta/edo lan-kostu, indarrean dagoen legeria eta hari eragiten dioten hitzarmenak betez, eta udala kontratistaren eta haren langileen arteko harremanen gaineko erantzukizunetik erabat salbuetsita geratuko da.

Une oro erakutsi beharko da langileak udalak kontratatutako kanpoko zerbitzu bateko kide direla, eta horretarako bereizgarri egokiak eraman beharko dituzte, baina ezin izango dira inola ere langile publikoekin nahastu. Hartutako baliabideak, baliabideak edo neurriak nahikoak ez direla iritziz gero, udalak kontratuaren betearazpena eteteko aginduko du, eta erabaki horren ondorioak enpresa esleipendunari egotziko dizkio.

Kontratua azkentzean, kontratuaren xede diren lanak egin dituzten pertsonak ezingo dira finkatu sektore publiko kontratatzaileko ente, organismo edo entitateko langile gisa.

Betebehar hauek, kontratuaren funtsezko betebehar legezko izaera daukate, SPKLren 211.1.f) artikuluak xedatzen dituen eraginetarako.

Esleipendunak Bermeoko Udaleko zerbitzuei atxikitako langile guztien soldatak ordaindu beharko ditu legeak ezarritako epeetan.

Hori horrela, udalak edozein momentutan eska dakioke esleipendunari langileek sinatutako egiaztagiria aurkeztea, non adierazten duten soldatak epe barruan jaso dituztela. Esleipendunak ez badu erantzuten, ulertuko da soldatak ez direla ordaindu epe barruan.

Esleipendunak ez baditu epe barruan soldatak ordaintzen, udalak hurrengo zigorrak jar ditzake:

- Soldata ordaintzeko berandutza aste bete baino gehiagokoa bada: epe barruan ordaindu ez zaion langilearen aurreko hilabeteko soldata gordinaren % 5a.
- Soldata ordaintzeko berandutza aste bi baino gehiagokoa bada: epe barruan ordaindu ez zaion langilearen aurreko hilabeteko soldata gordinaren % 10a.
- Soldata ordaintzeko berandutza hilabete baino gehiagokoa bada: ulertuko da ez dela bete funtsezko kontratu-betebeharra; eta, beraz, kontratua suntsiarazteko arrazoia izango da 211.1. f) artikuluan adierazitako ondorioetarako.
- Urte bateko epean, baten baino gehiagotan, soldata ordaintzeko berandutza aste bi baino gehiagokoa bada: ulertuko da ez dela bete funtsezko kontratu-betebeharra; eta,

CSV: 07E500080EA300G6K6C6L8MBJ0

beraz, kontratua suntsiarazteko arrazoia izango da 211.1. f) artikuluan adierazitako ondorioetarako.

13. ESLEIPENDUNAREN BETEKIZUNAK, SEGURTASUN ETA OSASUN ARLOAN

Enpresa esleipendunak lan arloan, Gizarte Segurantzan eta laneko segurtasun eta higienean indarra duten legezko xedapenak bete beharko ditu.

Kontratua gauzatzen hasi eta hurrengo 5 egunetan, zerbitzu-kontratu honen eraginpeko langileak Gizarte Segurantzan alta emanda daudela egiaztatu beharko da, dagokion alta-ziurtagiriaren bidez.

Betebehar hori ez betetzeak kontratuaren exekuzioa etetea ekarriko du, eta haren ondorio guztiak enpresa esleipen-hartzaileari egotziko zaizkio.

Sektoreko hitzarmen kolektiboa osorik aplikatu beharko zaie kontratu honekin zerikusia duten langileei.

Ezarritako baldintzak funtsezkoak dira eta ez betetzeak kontratua amaitzea ekar dezake. Hala ere, ekintza bakana dela, birbidera daitekeena eta iraungipenarekin interes orokorraren aurka joan daitekeela uste denean, alde batera utziko da iraungipena, eta zehapen hau ezarriko da: arau-hauste bakoitzeko esleipen-prezioaren %1 eta %5 artean (BEZ barne). Portzentajea zehazteko, honako hau hartuko da kontuan: larritasuna, berrerortzea eta fede txarra izatea.

Zehapen horietatik aparte dago kontratistak kontratua gauzatzearen ondorioz hirugarrenei eragindako galera eta kalte guztien kalte-ordainetan duen betebeharra.

Ezartzen diren zehapenak edo kalte-ordainak berehala betearaziko dira, eta udalak enpresa esleipen-hartzaileari ordaindu behar dizkion fakturetatik behin betiko bermetik edo eskubide publikoen diru-sarrerak jasotzeko legeak eskaintzen duen beste edozein modutan kendu ahal izango dira.

Aurrekoa deusetan galarazi gabe, enpresa kontratistak baldintza administratiboen agiri honetan, baldintza teknikoen orrietan edo kontratuan ezarritako gainerako betebeharrak bete beharko ditu.

Betebehar horiek legezko betebehar funtsezkoak dira, SPKLren 211.1.f) artikuluan aurreikusitako ondorioetarako.

14. EXEKUZIO BALDINTZA BEREZIAK

Kontratu honetan, kontratua gauzatzeko baldintza berezi gisa, honako hauek ezarri dira, kontratuaren xedearekin eta kontratatu beharreko horniduraren kalitatearen eta

CSV: 07E500080EA300G6K6C6L8M8J0

prezioaren arteko erlazio onena lortzeko helburuarekin zerikusia dutelako. SPKLren 202. artikuluan xedatutakoarekin bat, kontratua gauzatzeko baldintza berezi hauek ezarri dira enpresa esleipen-hartzailearentzat:

-Ingurumenekoak:

Kontratista behartua dago kontratuan eskatzen diren produktu guztiak material birziklagarriz biltzera eta ondoren hondakinak kudeatzeko sistema baimendu baten bidez bildu eta birziklatzera.

15. KONFIDENTZIALTASUNA

Kontratua betetzerakoan, bai kontratistak bai hari atxikitako pertsonek eta, hala badagokio, enpresa azpikontratistek, eskuratzen duten informazio guztia isilpekoa da, eta sekretu profesionalaren betebeharraren mende dago, aplikatu beharreko araudiarekin bat etorriz. Beraz, isilpean gorde behar da, eta ezin da inolaz ere, ez osorik ez zati batean, kontratuaren parte ez den pertsona fisiko edo juridikoren baten esku utzi, aldez aurreko baimen espresua izan ezean.

Aurreko edozein pertsona fisiko edo juridikok konfidentzialtasun-betebeharra eta, hala badagokio, lanbide-sekretuaren betebeharra urratzen baditu, aplikatu beharreko araudiaren arabera dagokion erantzukizuna eta kalte-galerak eskatuko dira. Klausula honetan adierazitako betebeharrekin bete beharko da zerbitzua, nahiz eta kontratu-harremana amaitu.

Nolanahi ere, datu pertsonalak tratatu behar ez diren lanetan, debekatuta dago datuetara sartzea, eta nahitaez isilpean gorde behar dira ezagut daitezkeenak.

16. AZPIKONTRATATZEA ETA LAGATZEA

Kontratistak hirugarrenekin hitzartu ahal izango du prestazioaren zati bat egitea, SPKLren 215.2 artikuluko d) eta e) letretan ezarritakoa izan ezik, edo prestazioa edo zati bat kontratistak zuzenean egin behar duela xedatu denean.

Azpikontratazioak egiteko, baldintza hauek bete beharko dira:

a) Lizitatzaileek beren eskaintzan adierazi beharko dute azpikontratatzeko asmoa duten kontratuaren zatia, kontratuaren zenbatekoa eta azpikontratisten izena edo enpresa-profila, lan edo teknika aldetik kaudimenari dagozkion baldintzen arabera zehaztua.

Kasu horretan, azpikontratazioak eskaintzan adierazitakoarekin bat ez badatoz, ezin izango dira egin hurrengo paragrafoan aipatutako justifikazioak jakinarazi eta aurkeztu eta hogei egun igaro arte, administrazioak aldez aurretik berariazko baimena eman ezean edo justifikatutako larrialdi-egoeran egon ezean, salbu eta administrazioak epe horretan aurkakotasuna jakinarazten badu.

CSV: 07E500080EA300G6K6C6L8M8J0

b) Nolanahi ere, kontratistak idatziz jakinarazi beharko du, kontratua esleitu ondoren, eta, beranduenez, kontratua gauzatzen hasten denean, kontratazio-organoari azpikontratuak egiteko asmoa, azpikontratatutako prestazioaren zatia eta azpikontratistaren identitatea, harremanetarako datuak eta ordezkaria edo legezko ordezkariak adieraziz, eta azpikontratistak kontratua gauzatzeko duen gaitasuna behar bezala justifikatuko du, dituen elementu teknikoak eta langileak eta esperientzia kontuan hartuta.

Halaber, egin beharreko azpikontratuaren berri administrazioari emateko idazkiarekin batera, kontratistak egiaztatu beharko du azpikontratistak ez duela kontratatzeko debekurik, SPKLren 71. artikuluaren arabera. Egiaztapen hori azpikontratistaren erantzukizunpeko adierazpenaren bidez egin daiteke.

Kontratista nagusiak idatziz jakinarazi beharko dio kontratazio organoari kontratu nagusia gauzatzen den bitartean informazio hori aldatzen bada, eta azpikontratista berriei buruzko informazio guztia.

Baldintza horiek betetzen ez badira, azpikontratistaren gaitasuna edo larrialdi-egoera edo azpikontratazioa presakoa egiten duten inguruabarrak egiaztatzen ez badira, besteak beste, SPKLn aurreikusten dira, eta kontratua gauzatzean duen eraginaren arabera, ondorio hauetako bat izango dute:

a) Kontratistari azpikontratuaren zenbatekoaren % 50era arteko zigorra ezartzea.

b) Kontratua suntsiaraztea, betiere SPKLren 211. artikuluaren 1. zenbakiaren f) letraren bigarren lerrokadan ezarritako baldintzak betetzen badira.

Azpikontratistak kontratista nagusiaren aurrean baino ez dira behartuko, eta hark bere gain hartuko du, beraz, kontratua betetzearen erantzukizun osoa administrazioaren aurrean.

Kontratistak azpikontratazioaren berri eman beharko die langileen ordezkariei, lan arloko legeriaren arabera.

Azpikontratistek ez dute zuzeneko ekintzarik izango administrazio kontratatzailearen aurrean, kontratu nagusia eta azpikontratazioak gauzatzearen ondorioz kontratistarekin hartutako betebeharrengatik.

Kontratista behartuta dago azpikontratistei edo hornitzaileei adostutako prezioa ordaintzera, merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurka borrokatzeko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean aurreikusitako epeetan eta baldintzetan. Ez da aurreikusten azpikontratistei zuzeneko ordainketarik egiteko aukerarik.

Esleipendunak kontratutik eratorritako eskubideak eta betebeharrak hirugarren

CSV: 07E500080EA300G6K6C6L8M8J0

bati laga ahal izango dizkio, baldin eta lagatzailearen ezaugarri teknikoak edo pertsonalak kontratua esleitzeko arrazoi erabakigarriak izan ez badira, eta, gainera, SPKLren 214. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen badira, eta lagapena merkatuko lehiaren murrizketa eraginkor bat ez bada.

Ezin izango zaio hirugarren bati lagapena baimendu, baldin eta horrek kontratistaren ezaugarriak nabarmen aldatzen baditu, horiek kontratuaren funtsezko elementuak badira.

Enpresa esleipen-hartzailearen ondorengotza emateko, SPKLren 98. artikuluan xedatutakoa hartuko da kontuan.

17. ESLEIPENDUNAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA BURUTZERAKOAN BESTE BATZUEI KALTEAK ERAGITEN BADIZKIE

Kontratua gauzatzen den bitartean, enpresa kontratista izango da edozein pertsona, jabetza edo zerbitzuri, publiko zein pribaturi, bere ardurapeko langileen egintza, omisio edo axolagabekeriaren ondorioz, edo antolaketa txarraren, zerbitzuaren babesaren edo antzeko beste arrazoiren baten ondorioz sor dakizkiokeen kalteen erantzule. Kontratua gauzatzeko beharrezkoak diren eragiketen ondorioz sortzen diren kalte-galeren erantzulea enpresa esleipenduna izango da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen 196. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

18. KONTRATUA ALDATZEA

Behin kontratua burututa, interes publikoko arrazoiengatik aldatu ahal izango da, hala aurreikusita dagoenean edo, aurreikusi gabeko kasuetan, legean aurreikusitako inguruabarrak gertatzen direnean. Hau da:

a) Aurreikusitako aldaketak (SPKLren 204. artikulua):

Kontratua indarrean dagoen bitartean aldatu ahal izango da, baldin eta laburpen taulan aukera hori aurreikusita badago eta argi, zehatz eta zalantzarik gabe zehaztu badira zein baldintzatan erabili ahal izango den, bai eta norainokoa, mugak eta izaera ere; zein baldintzatan erabili ahal izango den, modu objektiboan egiazta daitezkeen inguruabarrengatik.

Nolanahi ere, kontratua aldatu ahal izango da, hasierako prezioaren % 20raino gehienez.

b) Aurreikusi gabeko aldaketak (SPKLren 205. artikulua):

Kontratuak SPKLren 205. artikuluan aurreikusitako kasuetan eta baldintzak betez baino ezin dira aldatu.

Prezioa egikaritze-unitateen bidez zehazten bada, ez dira aldaketatzat hartuko prestazioa behar bezala gauzatzen den bitartean kontratuan aurreikusitako unitateen

CSV: 07E500080EA300G6K6C6L8M8J0

gainean benetan gauzatutako unitateen kopuruan gertatzen den aldaketa. Unitate horiek likidazioan jaso ahal izango dira, baldin eta kontratuaren prezioaren %10 baino gehiagoko gastua gehitzen ez badute.

Kontratazio-organoak aurreikusitako aldaketak nahitaez egin beharko dituzte kontratistek, eta aurreikusi ez direnak nahitaez egin beharko dituzte, baldin eta, bakarka edo batera, kontratuaren hasierako prezioaren % 20 baino gehiago aldatzen ez badute. Kontratistari entzun ondoren erabakiko dira, eta behin betiko bermea doitu ondoren, administrazio-agirian formalizatu beharko dira.

Aldaketa egiteko prozedura SPKLren 207. artikuluan ezarritakoa izanen da.

19. HORNIDURAK JASOTZEKO EPEA ETA BERME EPEA

A) Harrera:

Egiaztapena, administrazioak harrera- edo adostasun-egintza formal eta positibo bat (harrera-akta) egin behar du, kontratuaren xedea entregatu edo egin eta hurrengo hilabetearen barruan, baldin eta klausula-orri hauen azaleko orrian besterik zehaztu ez bada.

Egindako lana kontratatutako prestazioarekin bat ez datorrela uste bada, idatziz eman beharko zaizkio enpresari aurkitutako akatsak konpontzeko jarraibideak. Idazki horretan zehaztuko da zuzentzeko epea.

Enpresa kontratistak oharrei buruzko erreklamaziorik aurkezten badu, kontratazio-organoak ebatziko du.

Enpresak oharrei buruzko idatzizko erreklamaziorik aurkezten ez badu, horiekin ados dagoela ulertuko da eta ikusitako akatsak zuzendu edo konpondu beharko ditu.

Ez da bidezkoa izanen jarraibideak bete arte jasotzea, eta orduan akta eginen da.

Akatsak zuzentzeko emandako epea behar bezala egin gabe bukatzen bada, administrazioak harrera ukatuko du eta ez du ordaintzeko obligaziorik izango edo, hala badagokio, ordaindutako prezioa berreskuratzeko eskubidea izango du.

Nolanahi ere, egindako lanak ez badatoz bat kontratatutako prestazioarekin, administrazioari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik, kontratazio-organoak uko egin diezaioke jasotzeari, eta ez du ordaintzeko obligaziorik izango edo, hala badagokio, ordaindutako prezioa berreskuratzeko eskubidea izango du.

Enpresa kontratistak eskubidea izanen du kontrataturiko prestazioa betetzeari buruz egiten diren oharrak ezagutu eta haien gainean entzuna izateko.

Harrera edo adostasun akta egiten denetik hilabeteko epean, kontratistari

CSV: 07E500080EA300G6K6C6L8M8J0

kontratuaren likidazioa adostu eta jakinarazi beharko zaio eta, hala badagokio, ondoriozko saldoa ordaindu.

B) Berme-epea:

Berme-epea laburpen-taulan ezarritakoa izango da.

Epe horretan, behin betiko bermea SPKLren 110. artikuluan aipatzen diren kontzeptuei aplikatuko zaie.

Zatikako harrerarik baldin bada, zatikako harreren datatik hasiko da kontatzen jasotako aldeen berme-epea.

Berme-epean egindako lanetan akatsak edo hutsak daudela egiaztatzen bada, kontratazio-organoak eskubidea izango du kontratistari horiek zuzentzeko eskatzeko.

Kontratistak akatsak kontratazio-organoak ezarritako epean zuzentzen ez baditu, organo horrek Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako nahitaezko betearazpen-bideak erabili ahal izango ditu.

Berme-epea amaitu eta administrazioak aurreko idatz-zatietan aipatutako eragozpen edo salaketarik egin ez badu, kontratistak ez du erantzukizunik izango egindako prestazioagatik. Hala ere, SPKLren 314. eta 315. artikuluetan akatsen konponketari eta obra-proiektuak egiteko kontratuen erantzukizunari buruz ezarritakoa bete beharko du.

Kontratistak eskubidea izanen du kontrataturiko prestazioa betetzeari buruz egiten diren oharrak ezagutu eta haien gainean entzuna izateko.

20. ESLEIPENDUNARI EZARRI BEHARREKO ZIGORRAK BALDINTZAK BETETZEN EZ BADITU

A) KONTRATUA BURUTZEKO EPEAK DIRELA ETA

Esleipendunaren erruagatik, kontratua burutzeko epe osoa edo epe partzialak igarotakoan kontratua burutu gabe badago, administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera utzi eta bermea bereganatzea, edo kontratua burutu arte igarotzen den egun bakoitzeko diru-zigorra ezartzea: egunean 0,60 euro kontratuaren prezioaren 1.000,00 euroko (SPKLren 193.3. artikulua).

Atzerapenagatiko zigorren guztizko zenbatekoak kontratuaren prezioaren 100eko 5aren multiploren bat jotzen duen bakoitzean, kontratazio-organoak aukera izango du kontratua bertan behera uzteko edo zigor gehiago ezarri eta burutzapenean aurrera egin dadila erabakitzeko.

CSV: 07E500080EA300G6K6C6L8M8J0

B) PRESTAZIOEN BURUTZAPEN PARTZIALA DELA ETA

Esleipendunak, bere erruagatik, kontratuko prestazioen burutzapen partziala epean bukatzen ez badu, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera uztea eta behin betiko bermea atxikitzea edo hurrengoko zigorrak ezartzea (SPKLren 192.2. artikulua):

- Ez-betetze oso larrien kasuan, 500,00 euroko isuna jartzea. Ulertzen da ez-betetze oso larriak direla hurrengoak:

o Hornidurak egitea zehaztutako data baino zazpi egun beranduago, salbu eta ezinbesteko kasuetan.

o Agerikoa denean hornidurak ematen direla modu akasdunean edo irregularrean.

o Ez betetze sistematikoa epeetan.

o Udalaren agindu ofizialei jaramonik ez egitea.

o Ez betetzea plegu hauetan ezarritako edozelako baldintza edo epe, aurreikusitako bestelako ondorioen kalte barik.

o Indarreko legeak derrigortzen dituen errebisioak ez pasatzea.

- Ez-betetze larrien kasuan, 300,00 euroko isuna jartzea. Ulertzen da ez- betetze larriak direla hurrengoak:

o Hornidurak egiterakoan sistematikoa ez den ez betetzea egotea.

o Hornidurak egiterakoan albaranak ez entregatzea, albaranetan formazioa faltatzea edo albaranen informazioa ez izatea benetakoa.

o Ez betetze arinak errepikatzea.

- Ez-betetze arinen kasuan, 150,00 euroko isuna jartzea. Ulertzen da ez- betetze arinak direla hurrengoak:

Aurretik zehaztu ez direnak eta zentzu batean orrietan zehaztutako baldintzak kaltetzen direnean.

Zigorrak kontratazio organoak ezarriko ditu, espediente zehatzaile laburtua izapidetu ondoren.

Ezartzen diren zigorrak edo kalte ordainak berehala betearaziko dira eta zenbatekook kendu ahalko dira udalak esleipendunari ordaintzeko dauzkan fakturetatik; behin betiko bermetik edota zuzenbide publikoko sarrerak jasotzeko legeak emandako edozein bidetik.

C) PRESTAZIOEN EXEKUZIO AKASTUNA

Esleipendunak kontratua akatsekin exekutatuko balu, ez betetzearen larritasunarekin bat datozen zigorrak ipiniko dira eta, bakoitzak, ezingo du kontratuaren prezioaren % 10 gainditu, ezta, zigor guztiak batera, % 50. (SPKLren 192.1. artikulua).

CSV: 07E500080EA300G6K6C6L8MBJ0

D) EXEKUZIO BALDINTZA BEREZIAK EZ BETETZEA

Kontratua mugatzen duen prezio edo aurrekontuaren % 0,5 eta % 10 bitartean, ez-betetzearen larritasunaren arabera eta, hala badagokio, errepikatzearen arabera.

21. KONTRATUA AMAITZEKO ARRAZOIAK

Kontratua bertan behera uzteko arrazoiak dira SPKLren 211.1 artikuluan eta 306. artikuluetan jasotakoak. Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 211.2 artikuluarekin bat etorriz, kontratua suntsiarazteko arrazoi bat baino gehiago baldin badago, eta arrazoi horiek iraungitzeak dakartzan ondorio ekonomikoei dagokienez, kontuan hartu beharko da denboran lehentasunez agertu dena.

Kontratua suntsiaraztea kontratazio organoak erabakiko du, SPKLren 212.1 artikuluan xedatutakoarekin bat, erregelamenduz ezarritako moduan izapidetutako prozeduraren bidez.

Kontratua kontratistaren ez-betetze errudunaren ondorioz suntsiarazten bada, bermea konfiskatuko zaio, eta, gainera, administrazioari kalte-ordaina eman beharko dio konfiskatutako bermearen zenbatekoa gainditzen duten kalte-galerengatik. Kontratistak ordaindu behar dituen kalte-galerak kontratazio-organoak erabakiko ditu, modu arrazoituan, kontratistari entzun ondoren, eta, besteak beste, aurreikusitako inbertsiorako dakarren atzerapena eta administrazioari eragiten dizkion gastu handiagoak kontuan hartuta.

Kontratua suntsiarazteko arrazoiak aplikatzeko, SPKLren 212. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio eta, ondorio horietarako, SPKLren 213. eta 307. artikuluetan xedatutakoari.

22. ADMINISTRAZIOAREN ESKUBIDEAK

Administrazioari dagokio a) kontratua interpretatzea, b) kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, c) herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, d) kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, Sektore Publikoaren Kontratuen 9/2017 Legeak ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

II.- KONTRATATZEKO JARDUNBIDEA

23. ESLEIPENA EGITEKO BIDEA ETA MODUA

Kontratu honen esleipena prozedura ireki oso sinplifikatuaren bidez egingo da, eta esleipen-irizpide bakar bati edo hainbat esleipen-irizpideri jarraituz egingo da, laburpen-taulan xedatutakoaren arabera eta SPKLren 159.6 artikuluaren arabera.

CSV: 07E500080EA300G6K6C6L8M8J0

Halaber, prozedura arrunta erabiliko da, SPKLren 116. eta 117. artikuluei jarraikiz.

Kontratua esleitzeko erabiliko diren irizpide eta formulak laburpen-taularen **24. atalean** zehaztutakoak izanen dira.

24. PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Kontratazio-prozedura honetan parte hartu ahal izango dute jarduteko gaitasun osoa duten pertsona fisiko edo juridikoek, espainiarrek nahiz atzerritarrek, baldin eta kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionala edo, hala badagokio, sailkapena egiaztatzen badute, eta kontratuaren xedearekin zuzeneko lotura badute, bakoitzaren estatutuen edo sorrerako arauen arabera, eta behar bezala egiaztatzen bada. Era berean, kontratua behar bezala burutzeko behar diren elementu pertsonal eta materialak dituen erakundea izan beharko dute.

Proposamenak aurkezteak esan nahi du lizitaziora aterako denak baldintzarik gabe onartzen dituela plegu honetako klausulak, karatularen zehaztapenak eta gainerako kontratu-agiriak, inolako salbuespenik gabe, bai eta aurkeztutako datu guztiak zehatzak direla eta prestazioa kontratatzeko eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituela dioen erantzukizuneko aitorpena ere.

Lizitatzaile bakoitzak ezin izanen du proposamen bat baino gehiago aurkeztu, ez bakarka, ez aldi baterako enpresa elkarte bateko baino gehiagoko kide gisa, eta lizitatzaileak ezin izanen du beste batzuekin aldi baterako elkartean proposamena izenpetu. Arau hauek hautsiz gero, sinatutako eskaera eta eskaintza guztiak ez dira onartuko.

25. DOKUMENTAZIOA AZTERTZEA ETA PROPOSAMENAK AURKEZTEA

Dokumentazioa aztertzea: Kontratazio honen espedientea, bai eta horrekin batera doan dokumentazio teknikoa ere, kontratugilearen profilean kontsultatu ahal izango da. Hona hemen lotura: http://bermeo.eus/udalaren_kontratuak.html.

Dokumentazio edota kontratazioaren gainean egiten diren kontsulta edo erantzunak lotesleak izango dira kontratazio organoarentzat eta kontratugilearen profilean argitaratuko dira SPKLren 138.3 artikuluarekin bat.

Proposamenak aurkeztea: ondorengo moduan, lekuan, ordutegian eta epean aurkeztu beharko dira:

LEKUA: Kontratugilearen profilean, lotura honen bidez: http://bermeo.eus/1470.html

EPEA: 10 lanegun, iragarkia kontratugilearen profilean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita (SPKLren 159.6.a) artikulua).

CSV: 07E500080EA300G6K6C6L8M8J0

Enpresa lizitatzaileek artxibo bakarra aurkeztu beharko dute.

Artxibo BAKARRA: laburpen-taulako **19. atalean** zehaztutako izena idatziko da bertan: "MATERIAL INFORMATIKOAREN HORNIDURA. ERANTZUKIZUNEKO AITORPENA ETA AUTOMATIKOKI KUANTIFIKA DAITEZKEEN ESLEIPEN-IRIZPIDEAK."

Artxibo horren barruan dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

A) Erantzukizuneko aitorpena Bermeoko Udalaren aurrean, administrazio-baldintzen agirietako I. Eranskineko ereduaren arabera.

B) Hala badagokio, ABEEa aitortzeko eredua.

C) Enpresa lizitatzaileak edo aurkezten duen pertsonak sinatutako eskaintza, administrazio-klausula zehatzen agiriko III. Eranskinean jasotako ereduaren arabera.

Artxiboan eransten den dokumentazio guztiak digitalki sinatuta egon beharko du.

Ez dira onartuko proposamen hauek:

1) Kontraesanak, ez aipatzeak, akatsak edo zirriborroak dituztenak, administrazioak eskaintza aintzat hartzeko funtsezkotzat jotzen duena argi ikustea eragozten badute.

2) Aztertutako eta onartutako dokumentazioarekin bat ez datozenak.

3) Eskaintzaren aurrekontua edo gehienezko tasa gainditzen dutenak.

4) Proposamenaren zenbatekoan akats argia dutenak.

5) Pleguaren III. Eranskinak ezarritako proposamen eredua nabarmen aldatzen dutenak.

6) Eskaintzailearentzat bideraezin egiten duten akatsak edo funtsik ez dituztenak.

Letretan adierazitako eskaintza zenbakietan adierazitakoarekin bat ez badator, letretan adierazitako kopurua nagusituko da; dokumentazioa aztertu eta gero, arrazoizko irizpideak erabiliz, kontratazio mahaiak beste jarrera bat hartzen ez badu salbu.

Lizitatzaile bakoitzak ezingo du proposamen bat baino gehiago aurkeztu, ez bakarka, ez aldi baterako enpresa elkarte bateko baino gehiagoko kide gisa. Arau hau betetzen ez bada, sinatutako eskaera eta eskaintza guztiak ez dira onartuko.

Udalak edozein momentutan eskatu ahal izango du erantzukizunpeko

CSV: 07E500080EA300G6K6C6L8M8J0

adierazpenean jasotakoak betetzen direla agiri bidez justifikatzeko.

Esleipendunak, horretarako errekerimendua jaso eta 5 laneguneko epean aurkeztu beharko ditu eskatutako agiriak.

Horiek horrela, gaitasunari, kaudimenari eta kontratatzeko debekurik ez izateari buruzko inguruabarrak eskaintzak aurkezteko azken egunean gertatu beharko dira eta kontratua burutzen den unean iraun.

Proposamenak aurkeztearen ondorioak: Proposamenak aurkezteak, parte hartzaileak baldintza agiriak onartzen dituela eta administrazioarekin kontratatzeko baldintza guztiak betetzen dituela suposatuko du.

AGIRIEN AURKEZPENARI BURUZKO OHARRAK

Konfidentzialtasuna

Aurkeztutako agiriren bat konfidentzialtzat jotzen duten lizitatzaileek izendapen zehatza egin behar dute (A artxiboan aurkeztu beharreko erantzukizuneko aitorpena bete behar dute), eta argi eta garbi adierazi behar dute, gain inprimatuta edo orriaren marjinan, konfidentzialtzat jotako dokumentuan bertan. Izendapena horrela egiten ez bada, dokumentua ez da konfidentzialtzat joko.

Eskaintza ekonomikoa ez da inolaz ere isilpekoa izango. Eskaintza ekonomikoaren isilpeko izendapena ez dela egin ulertuko da.

Konfidentzialtasun-deklarazioa ezin izango da lizitatzaileak aurkeztutako dokumentazio osora zabaldu, ez eta eskaintza teknikoaren egiaztagiri guztietara ere. Kasu horretan, edo adierazpen hori behar bezala dimentsionatzen ez bada, kontratazio-organoak erabakiko du, arrazoiak emanda, zer datu eta/edo dokumentu diren. Era berean, kontratazio-organoak ere jardungo du, baldin eta deklarazioak ez badu jasotzen lizitatzaileak konfidentzialtzat jo duen informazioa emateko arrazoi egoki eta aski oinarriturik.

Lizitatzaileak ez badu espresuki adierazi datu edo/eta agiririk isilpekotzat, aurkeztutako datu eta/edo dokumentuetako bat ere ez dela konfidentziala ulertuko da. Hala ere, salbuespen gisa eta arrazoiak emanda, kontratazio-organoak isilpekotzat jo dezake hala deklaratu ez den informazioa, enpresaren bidezko interesak babesteko.

Halaber, eskaintzak aurkeztutakoan, ezin izango da isilpekotzat jo aurkeztu ez diren datuak.

Esleipen prozeduran hasierako eskaintzakoa ez zen dokumentazioa aurkezten bada, dokumentazio berri hori osatzen duten datu edo dokumentuak konfidentzialtzat izenda daitezke, aurreko lerroaldeetan azaldutako baldintzetan.

CSV: 07E500080EA300G6K6C6L8M8J0

Dokumentazioaren egiazkotasuna

Administrazioak egiaztatu ahal izango du, esleipena egin baino lehen eta kontratua gauzatu bitartean, gutun-azaletako agirien edukia egiazkoa dela, bai eta karatula esleitzeko irizpidetzat hartzen direnak ere, eta ulertu behar da enpresak aurkeztutako datuak eta inguruabarrak faltsuak izateak kontratua baliogabetzea ekar dezakeela, hala badagokio, kontratistari kalte ordainezina leporatu ahal zaiolako, eta eratutako behin betiko bermea galdu egin dela.

26. AGIRIAK SAILKATZEA, ENPRESAK AUKERATZEA ETA PROPOSAMENAK IREKITEA

Proposamenak onartzeko epea amaituta, dokumentazio guztia duen artxibo bakarra irekiko da.

Lizitazio elektronikoko plataformaren bidez bermatuko da proposamenak ez direla irekiko aurkezteko epea bukatu arte. Ez da irekitzeko ekitaldi publikorik eginen eta ez da kontratazio mahaia eratuko, SPKLren 326.1 artikuluan aurreikusitako aukeraren arabera.

Proposamenak lizitazio elektronikoko plataformaren bidez irekiko dira, eta Bermeoko Udaleko kontratazio-unitatearen bulegoetan egingo dira.

Artxiboa ireki ondoren, beharrezkoak diren jarduketa hauek egingo dira:

- Eskaintzek pleguetan ezarritako baztertze-arrazoiren bat duten egiaztatzea.
- Onartutako eskaintzek balio anormalki baxuak dituzten egiaztatzea; kasu horretan, SPKLren 149. artikuluan adierazten den bezala jokatuko da, baina lizitatzaileari eskaintza justifikatzeko eman dakiokeen gehieneko epea ezin izango da 5 egun baliodun baino gehiagokoa izan, jakinarazpena bidaltzen den egunetik zenbatzen hasita. Prozedura hori amaituta, kontratazio-organoari eskaintzak onartzea edo baztertzea proposatzea erabakiko da.
- Eskaintzen puntuazioak kalkulatzea eta onena zein den zehaztea, esleipen-irizpide guzti-guztietan proposamen bakoitzak lortutako puntuak batuz.
- Kalkulua egiteko, ez dira kontuan hartuko ez onartzeko proposatu diren eskaintzak.

Eskaintzak automatikoki baloratu ahal izango dira gailu informatikoen bidez, edo kontratazio-organoari laguntzen dioten udal-zerbitzuen laguntzarekin.

Proposamen onuragarrien kasuan (puntuazioan berdintasuna, gehienez ere bi hamartar), esleipenean lehentasuna izateko, SPKLren 147.2 artikuluan jasotako irizpideak aplikatuko dira, eskaintzak aurkezteko epea amaitzeko uneari buruzkoak.

CSV: 07E500080EA300G6K6C6L8M8J0

Berdinketa hausteko irizpideen egiaztagiriak lizitatzaileek berdinketa gertatzen den unean aurkeztuko dituzte, eta ez aldez aurretik. Horretarako, kontratazio-mahaiak dagokion dokumentazioa eskatuko die eragindako lizitatzaileei, eta gutxienez bost egun naturaleko epea emango die aurkezteko.

Esleipendun gisa proposatutako lizitatzaileari dagokionez, Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialean egiaztatuko da enpresa behar bezala eratuta dagoela, proposamena sinatzen duenak eskaintza egiteko ahalorde nahikoa duela, eta ez duela kontratatzeko debekurik.

Eskaintzak baloratu ondoren, Bermeoko Udaleko kontratazio-unitateak sailkapena eta esleipen-proposamena bidaliko dizkio kontratazio-organoari, eta esleipena egiteko behar den dokumentazioa eskatuko dio, jakinarazpena bidali eta 7 egun balioduneko epean.

Enpresaburua Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzaileen Erregistroan inskribatuta badago, edo Europar Batasuneko estatu kide bateko datu-base nazional batean agertzen bada, enpresaren espediente birtual bat, dokumentuak elektronikoki biltegiratzeko sistema bat edo aurrekalifikazio-sistema bat bezala agertzen bada, eta horiek organo horiek doan eskura badaitezke, ez da behartuta egongo aipatutako lekuetan inskribatutako datuen justifikazio-agiriak edo beste froga dokumental bat aurkeztera, eta bertan adierazitako inguruabarrak aldatu ez direla adierazten duen erantzukizuneko aitorpena soilik aurkeztu beharko da (XII. eranskina).

Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzaileen Erregistroan inskribatuta egoteak enpresaburuaren gaitasun-baldintzei buruzko dokumentazioa aurkeztetik salbuetsiko ditu inskribatutako lizitatzaileak, bertan adierazitakoaren arabera eta kontrakorik frogatu ezean.

SPKLren 139.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, proposamenak aurkezteak berekin dakar kontratazio-organoari baimena ematea Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzaileen Erregistroan eta Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo Europar Batasuneko estatu kide bateko operadore ekonomikoen zerrendetan datuak kontsultatzeko.

Gainera, 7 egun balioduneko epean, Lizitatzaileen Erregistroan inskribatuta ez dagoen eta agiri honetan ezarritakoaren arabera eska daitekeen beste edozein agiri aurkeztu beharko du.

Beraz, lehia mugatzeagatik Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo Euskal Autonomia Erkidegoko baliokidean

CSV: 07E500080EA300G6K6C6L8MBJ0

inskribatuta egoteko betebeharra eskatzen ez den kasuetan, edo aipatutako erregistroan datu edo dokumenturen bat inskribatuta ez dagoenean, kontratazio-organoak eskaintzarik onena aurkeztu duen enpresaburuari edo lizitatzaileari eskatu beharko dio, bai eta ABEEa osatzen duten enpresa guztiei ere, ABEren bidalketa-egun gisa aurkeztu duten eta ABEa osatzen duten enpresa guztiei, ABEren bidalketa-egun gisa aurkeztu duten egun gisa.

1.- Jarduteko gaitasuna

1.1.- Enpresa pertsona juridikoa bada, eratze-eskritura edo -agiria, bere jarduera arautzen duten arauak jasotzen dituzten estatutuak edo sortze-egintza, pertsona juridiko motaren arabera dagokion erregistro publikoan behar bezala inskribatuta, hala badagokio, baita identifikazio fiskaleko zenbakia ere (IFZ).

1.2.- Banakako enpresaburua bada, NANa edo, hala badagokio, haren ordezko agiria.

1.3.- Espainiakoak ez diren enpresaburuen jarduteko gaitasuna, Europar Batasuneko estatu kideetako edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetako herritarrak badira, dagokion erregistroan inskribatuta egotearen bidez egiaztatuko da, ezarrita dauden estatuko legeriaren arabera, edo zinpeko aitorpena edo ziurtagiri bat aurkeztuta, Erkidegoko xedapen aplikagarrien arabera.

1.4.- Aurreko paragrafoan aipatzen ez diren atzerriko enpresen kasuan, Espainiak dagokion estatuan duen Diplomaziako Misio Iraunkorraren edo enpresaren egoitza dagoen lurralde-eremuko Kontsuletxeko Bulegoaren txostena, enpresak egiaztatu ondoren.

1.5.- Nazioarteko akordioetatik eratorritako Espainiaren betebeharrak aplikatzeari kalterik egin gabe, Europar Batasunekoak ez diren estatuetako edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetako pertsona fisiko edo juridikoek txosten bidez justifikatu beharko dute atzerriko enpresaren jatorrizko estatuak onartzen duela, funtsean, sektore publikoko erakunde onargarriekin egindako kontratazioetan Espainiako enpresek parte hartzea, SPKLren 3. artikuluan zerrendatutakoen antzera. Txosten hori Espainiak atzerrian duen Ekonomia eta Merkataritza Bulegoak egingo du, eta aurkezten den dokumentazioarekin batera aurkeztuko da.

2.- Enpresaburuen aldi baterako elkarteak

Kontratua aldi baterako enpresa-elkarte bati esleitzen bazaio, elkarte horrek eskritura publikoan egiaztatu beharko du eratu dela, bai eta elkarte horri esleitutako IFZ ere, kontratua haren alde esleitu ondoren. Nolanahi ere, loturaren iraupena kontratua azkendu artekoa izango da.

CSV: 07E500080EA300G6K6C6L8MBJ0

3.- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak

- Zerga-betebeharrak:

a) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan kontratuaren xedeari dagokion epigrafean alta eman izanaren jatorrizkoa edo kopia konpultsatua, betiere zerga horri lotutako jarduerak egiten baditu, dagokion ekitaldiari edo azken ordainagiriari buruzko proposamena aurkezten duen egunean egiten dituen jarduerei dagokienez, eta zerga horren matrikulan baja eman ez izanaren erantzukizunpeko adierazpenarekin osatuta. Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergari buruzko ekainaren 30eko 6/1989 Foru Arauaren Testu Bategina onartzen duen martxoaren 17ko 2/1992 Foru Dekretu Arauemailearen 5.1 artikuluko d), e) eta g) idatz-zatietan ezarritako salbuespenen batean egonez gero, foru-ogasunek edo, hala badagokio, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak salbuespena emateko berariazko ebazpena ere aurkeztu beharko dute. Aldi baterako enpresa-elkarteek, eraketa formalizatu ondoren, zergan alta emanda daudela egiaztatu beharko dute, enpresei dagokien tributazioa alde batera utzi gabe.

b) Foru-ogasunek edo, hala badagokio, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak emandako ziurtagiri positiboa, HAKLEOren 13. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen direla oro har jasotzen duena.

- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak:

Gizarte Segurantzaren Diruzaintzak emandako ziurtagiri positiboa, APKLEOren 14. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen direla oro har jasotzen duena.

Urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren Testu Bateginaren Hamalaugarren Xedapen Gehigarriaren arabera araubide berezian alta emateko betebeharretik salbuetsita dauden eta kasuan kasuko elkargo profesionaleko Gizarte Aurreikuspeneko Mutualitatean sartzea aukeratu duten edo duten elkargokideek kasuan kasuko Mutualitatearen ziurtagiria aurkeztu beharko dute, bertako kide direla egiaztatzeko.

3. Erantzukizunpeko adierazpenean hala adierazi badu, kaudimena kanpoko bitartekoekin integratzeko konpromisoa, eranskin gisa ageri den ereduaren arabera.

4. Esleipenduna aldi baterako enpresaburuen elkartea bada, elkartea formalizatzeko eskritura aurkeztu beharko du. Halaber, batasuneko kide bakoitzak Ogasunaren eta Gizarte Segurantzaren arloko ziurtagiri positiboa eta Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergari buruzko dokumentazioa aurkeztuko ditu.

5. Baliabideak atxikitzeko konpromisoa (VIII. eranskina).

Aurkeztutako dokumentazioan akats edo omisio konpongarririk ikusten bada, interesdunari jakinaraziko zaio eta gehienez ere 3 egun naturaleko epea emanen da akatsa zuzentzeko.

CSV: 07E500080EA300G6K6C6L8MBJ0

Epe horretan errekerimendua behar bezala betetzen ez bada, lizitatzaileak eskaintza kendu duela ulertuko da. Kasu horretan, puntuazio altuena lortu duen hurrengo izangaiari dokumentazio bera eskatuko zaio.

Aipatu baldintzak betetzen direla egiaztatu ondoren, kontratazio organoari igorriko zaio kontratazio mahaiak kontratua esleitzeko egindako esleipen proposamena.

Administrazioak egiten dituen jakinarazpen eta komunikazio guztiak bitarteko elektronikoen bidez egingo dira, Euskadiko Kontratazio Publikoko Plataformaren bidez edo, hala badagokio, Bermeoko Udalaren egoitza elektronikoaren bidez.

27. ESLEIPENA ETA FORMALIZAZIOA

Dokumentazioa jaso eta 5 egun balioduneko epean esleitu beharko du kontratua kontratazio-organoak. Kontratazio-organoak erabakiko du esleipena, ebazpen arrazoitu bidez, eta lizitatzaileei jakinaraziko zaie gaitutako helbide elektroniko baten bidez edo Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataforman agertuz. Halaber, kontratugilearen profilean argitaratuko da 15 egun naturaleko epean.

Kontratazio-organoak lizitazioa esleitu gabe utzi ahal izango du, pleguan jasotako irizpideen arabera onargarria den eskaintza edo proposamenik ez badago.

Kontratua formalizatzen denean burutzen da. SPKLren 159.g) artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, kontratua formalizatzeko, kontratistak esleipen-ebazpena onartzen duela sinatu beharko du.

Aurrekoa gorabehera, kontratua administrazio-agiri batean ere formalizatu ahal izango da. Agiri hori lizitazioaren baldintzetara egokituko da zehatz-mehatz, eta, gainera, eskritura publiko batean formalizatu ahal izango da kontratistak hala eskatzen badu, eta kontratua emateak dakartzan gastuak bere gain hartuko ditu. Kasu horretan, kontratistak aipatutako dokumentuaren kopia legitimatu bat eta kopia sinple bat eman beharko dizkio administrazioari, formalizatzen denetik gehienez hilabeteko epean.

Kontratua formalizatzeko edo kontratistak suntsiarazpena onartzeko, esleipenaren jakinarazpena jaso eta hurrengo 15 egun baliodunak igaro baino lehen egin beharko da, SPKLren 151. artikuluan aurreikusitako moduan.

SPKLren 153.4 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, esleipendunari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik kontratua formalizatu ez bada edo kontratistak esleipen-ebazpena onartu ez badu, adierazitako epean lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren % 3ko zenbatekoa eskatuko zaio, BEZ kanpo, zigor gisa, SPKLren 71. artikuluaren 2. zenbakiko b) letran ezarritakoari kalterik egin gabe.

Kontratua suntsiarazten bada burutzeko epea bukatu baino lehen, puntuaziorik altuena lortu duen hurrengo lizitatzaileari esleituko zaio kontratua, baldin eta

CSV: 07E500080EA300G6K6C6L8MBJ0

esleipenarekin eta kontratua formalizatzearekin ados dagoela adierazten badu. Ados ez egotekotan edo uko egiten bada, jarduketa berak egingo dira hurrengo lizitatzaileekin, prozeduran lortutako puntuazioaren arabera.

28. ASEGURUAK

Kontratua formalizatu ondoren, esleipendunak agiri hau aurkeztu beharko du:

Aseguru entitatearen ziurtagiria, kontratistak sinatutako erantzukizun zibileko poliza indarrean duela frogatzen duena.

Esleipendunak ondorengo aseguru polizak kontratatu eta bere kontura mantenduko ditu kontratuaren iraupen eta berme aldian:

Erantzukizun zibileko asegurua, alderdi orokor edo ustiapenekoa, patronala eta amaitutako lanen asegurua, aseguratu gisa kontratista eta, hala badagokio, azpikontratista barne.

Ustiapeneko erantzukizun zibilerako frankizia ez da 10.000 eurotik gorakoa izanen, eta ezbeharragatiko kalte-ordainaren gutxieneko muga hau izango da:

Lizitazio prezioa	Kalte-ordainaren gutxieneko muga
1.000.000 € arte	300.000 €
1.000.001 eta 3.000.000 € bitartean	600.000 €
3.000.001 eta 9.000.000 € bitartean	1.500.000 €
9.000.001 eta 25.000.000 € bitartean	3.000.000 €
25.000.001 eta 75.000.000 € bitartean	6.000.000 €
75.000.000 € baino gehiago	12.000.000 €

Nolanahi ere, esleipendunak ordaindu beharko ditu frankiziaren zenbatekoan eta aseguru-polizetan ezartzen diren mugak gainditzen dituzten kalte eta galerak, bai eta poliza horietan estaltzen ez diren ondasun eta arriskuak ere.

Kontratua aurreikusitako datatik aurrera atzeratzen bada, behar diren luzapenak kontratatuko dira, eta esleipendunak dagokion gainprima ordaindu beharko du.

29. KONTRATUARI ADMINISTRAZIOAK UKO EGITEA

Kontratazio-organoak kontratua ez esleitzea edo dagokion deialdia egin den kontratua ez egitea erabakitzen badu, hautagaiei edo lizitatzaileei jakinaraziko die, eta erabaki horren berri emango dio Europako Batzordeari, kontratua Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean iragarri denean.

Kontratua ez esleitzeko edo egiteko erabakia kontratazio organoak hartuko du, kontratua formalizatu aurretik. Kasu horietan, lizitazioan edo lizitatzaileetan parte

CSV: 07E500080EA300G6K6C6L8M8J0

hartzeko gai diren hautagaiei konpentsatuko zaizkie iragarkian edo pleguan aurreikusitako moduan egindako gastuengatik, edo, halakorik ezean, administrazioaren ondare-erantzukizuna kalkulatzeko erabilitako balorazio-irizpideen arabera, administrazio-prozedura erkideko izapideen bidez.

Espedientean behar bezala justifikatutako interes publikoko arrazoiak direla medio baino ezin izanen da kontratua esleitu edo sinatu. Kasu horretan, ezin izanen da xedearen beste lizitazio bat sustatu, erabakia arrazoitzeko arrazoiek dirauten bitartean.

III.- IZAERA, ERREGIMEN JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

30. IZAERA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA

Plegu hau arautzen duen kontratuak izaera administratiboa du, SPKLren 25. artikuluan adierazitakoaren arabera, eta, prestakuntzari, esleipenari, ondorioei eta iraungipenari dagokienez, Estatuko kontratazio-arloko oinarrizko legediak (Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legea, Europako Parlamentuko zuzentarauak Espainiako ordenamendu arauak Espainiako ordenamendu juridikora aldatzen dituena) arautzen du.

Zentzu honetan, lizitatzaileak berariaz onartzen du sektore publikoko kontratuei buruz indarrean dagoen legeriarekin eta plegu honetan xedatutakoarekin bat etortzea.

Administrazio-baldintza zehatzen agiri honen eta espedientearekin batera doan dokumentazio teknikoaren artean kontraesanak izanez gero, agiri honetan zehaztutakoa nagusituko da.

Era berean, euskarazko eta gaztelaniazko testuen artean ezberdintasunik egongo balitz, euskarazko testuak dioenak izango du lehentasuna.

31. ERREKURTSOAK

Baldintza agirien eta kontratazio espedientean onartutako erabakien aurka, laburpen taularen **38. atalean** zehaztutako errekurtsoak aurkeztu daitezke.

32. JURISDIKZIO ESKUDUNA

Kontratutik sortzen diren auziak administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren menpe egongo dira. Nolanahi ere, bi alderdiek nahi izanez gero, auziak arbitrajearen bidez konpondu daitezke, indarrean dagoen legerian zehaztutakoarekin bat etorriz.

CSV: 07E500080EA300G6K6C6L8M8J0